

BEROJAN PROIEKTUAREN BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Berojan proiektuan banaketa eta komunikazioa kanal desberdinen bidez egingo dira, produktua bezeroengana modu eraginkorrean helarazteko. Alde batetik, banaketa-kanal nagusia salmenta-makinak beraiek izango dira; makinak kokapen estrategikoetan jarriko dira, hala nola ikasle-erresidentzietan, gimnasioetan, eskoletan, ospitaleetan eta autobus zein tren geltokietan. Horrela, bezeroak zuzenean makinara joango dira eta bertan egingo dute erosketa, ordainketa eta produktuen jasotzea, prozesu azkar eta errazean. Bestetik, komunikazio-kanalak batez ere ikusgarritasun zuzenean eta ingurune fisikoan oinarrituko dira: makinaren diseinu erakargarria, kartelak eta informazio-paneletan prezioak eta produktuak argi erakutsiz. Horrez gain, sare sozialen bidezko komunikazioa erabiliko da, batez ere gazteei eta ikasleei zuzenduta, Berojanen balio-proposamena zabaltzeko (janari beroa, azkarra eta 24 ordukoa). Kanal horien bidez bezeroak proiektuaren berri izango du (pertzepzioa), eskaintza aztertuko du (ebaluazioa), makinaren bidez erosiko du (erosketa), produktua berehala jasoko du (entrega) eta esperientzia positiboa izanez gero berriro erosiko du (salmenta ondorengoa). Horrela, Berojanek bezeroekin harreman zuzena eta etengabea mantenduko du.